

EKONOMIA ETA EKINTZAILETZA

Ekonomia bizitzaren alderdi guztietan dago, eta horregatik da garrantzitsua ikasleek ezagutza ekonomikoak eta finantzarioak eskuratzea, informatuta egon daitezen eta baliabide indibidualak eta kolektiboak egoki kudea ditzaten, beren bizi-kalitatearen, aurrerapenaren eta gizarte-ongizatearen hobekuntza sustatzen laguntzeko.

Ekonomia eta Ekintzailletza jakintzagaiaren ikasketa eta prestakuntza beharrezkoa da gure hezkuntza-sistemaren etapa honetan, elkarri lotutako bi helburu baititu. Alde batetik, ekonomia eta finantzak ikasita, gertakari ekonomikoak azaltzen dituzten elementuak eta arauak ezagutarazten dira, baita finantza-erabakien ondorioak ere, besteak beste honako hauekin lotutako balioak proiektatuz: pertsonen arteko elkartasuna, iraunkortasunaren garrantzia, arrakala ekonomikoa eta digitala, ekitaterik eza edota baliabideen eta desberdintasunaren kudeaketa. Bestalde, ikasleei prestakuntza ekonomikoa eta finantzarioa

eskaini nahi zaie, ingurunean hautemandako beharrak asetzen lagunduko duten aukerak eta ideiak bilatzera motibatuko dituen, ideia horiek ekintzara eramateko estrategiak garatuz eta, horrela, pertsona guztientzako balioa sortuko duen, berrituko duen eta ongizate pertsonala, soziala eta kulturala hobetzen lagunduko duen proiektu ekintzailea sortuz.

Ekonomia eta Ekintzailtza jakintzagaia ikastearen helburua da ihes egitea neurrigabeko hazkunderako joera duen ekonomia merkantilistaren munduaren ikuspegi tradizionaletik, lankidetzaren bidez hazkunde inklusiboa, ekitatiboa eta iraunkorra bilatuko duen ekonomia ekosozial baten ikasketaren mesedetan. Ekonomia horrek bidea eman behar du desberdintasunak murrizteko, lana eta bizitza pertsonala uztartzeko eta giza jarduera biosferaren zikloetara egokitzeko.

Ekonomia eta Ekintzailtza jakintzagaiaren hezkuntza-helburua bat dator Kontseiluaren 2018ko maiatzaren 22ko Gomendioarekin, etengabeko ikaskuntzarako funtsezko kompetentziei buruzkoarekin. Gomendio horrek adierazten du beharrezkoa dela hezkuntzan tresnak sartzea ikasitakoa denbora errealean aplikatu ahal izateko, eta ideia, teoria, produktu eta ezagutza berriak sortzeko.

Jakintzagai honen curriculum diseinatzean, erreferentetzat hartu dira espero den kompetentzia-garapena zehazten duten deskriptore operatiboak, oinarrizko irakaskuntza amaitzean ikasleek izango duten irteera-profilaren arabera. Era berean, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzarako finkatutako helburuei begira diseinatu da, ikasleengan «espíritu ekintzailea eta beren buruarekiko konfiantza, parte-hartzea eta zentzu kritikoa, ekimen pertsonala, eta ikasten ikasteko, erabakiak hartzeko eta erantzukizunak beren gain hartzeko gaitasuna» garatzen laguntzeko.

Ikaskuntza esanguratsuak, funtzionalak eta ikasleentzat interesgarriak diren abiatuta garatzen da, eta kompetentzia espezifikoko batzuk eskuratzearen inguruan antolatuta dago. Kompetentzia horiek helburu hauek dituzte:

- Lehenik eta behin, espíritu proaktibo hori sustatzea. Espíritu horrek islatu egin behar du ekintzailtza pertsonalaren, sozialaren eta enpresarialaren kultura bizkor eta berritzaileago batean. Horretarako, beharrezkoa da ikasleek beren buruaren analisi zehatza egitea eta, autoezagutza horretan oinarrituta, prestakuntza eta trebetasun pertsonalak eta sozialak garatzea, baita erronkei aurre egiteko, ziurgabetasuna kudeatzeko eta proiektua errealitateara eramateko erabaki egokiak hartzeko behar diren estrategiak ere.
- Bigarrenik, jakintzagai honetarako zehaztutako kompetentzia espezifikoek lagundu egiten dute ikasleek uler dezaten pertsona ekintzaileak bidea ireki behar duela elkarren artean erlazionatzen diren elementuak dituen testuinguru globalean. Horrek eskatzen du ingurunea arakatzea, hainbat esparru analizatuz, besteak beste, esparru soziala, ingurumenekoa, kulturala, artistikoa eta enpresariala, ikuspegi ekonomiko batetik, sor daitezkeen beharrak eta aukerak identifikatzeko, beharrezkoak diren giza baliabideak, baliabide materialak, immaterialak eta digitalak aurkitzeko, eta horiek ikuspegi ekintzailea izango duen proiektu pertsonal edo profesional batean aplikatzeko.
- Hirugarrenik, kompetentzia espezifikoek lagundu egiten dute ikasleek ikaskuntzak maila praktikoa batera transferitzen, prozesu osoa barne hartuko duen proiektua garatuz, hura asmatzetik hasi eta azken prototipoa egin arte eta ingurunean aurkeztu arte, ulertuta prototipoa irtenbide berritzaile eta baliozko bat ekarriko duen edozein emaitza izan daitekeela (ondasun bat, zerbitzu bat edo produktu bat).

Era berean, zuzeneko lotura dago jakintzagai honetako kompetentzia espezifikoen eta Lehen Hezkuntzako printzipio pedagogikoen artean. Horietan, esplizitatu egiten da ikaskuntza esanguratsua bultzatu behar dela, autonomia eta gogoeta sustatzen dituzten kompetentziak garatzeko. Gainera, jarraitutasuna dago jakintzagai honen eta kompetentzia giltzarri guztiak jorratzearen artean —Lehen Hezkuntzako etapan eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako lehen hiru mailetan—; bereziki, ekintzailtza-kompetentziari eta kompetentzia pertsonalari, sozialari eta ikasten ikastekoari dagokienez. Biak osatu egiten dira, pertsona ekintzailearen izaera zehaztea ahalbidetzen duten elementuak ekarriz; alde batetik, proiektu ekintzaileak planifikatu, kudeatu eta egikaritzearekin lotutako ezagutzak eskuratzen lagunduz, eta, bestetik, ziurgabetasunari aurre egiteko, gatazkak kudeatzeko, modu kritikoa gogoeta egiteko, erabaki etikoak hartzeko, taldean kolaborazioan aritzeko eta negoziatzeko trebetasunak eta jarrerak gara daitezzen sustatuz.

Ezarritako ebaluazio-irizpideen helburua da konpetentzia espezifikoen eskuratze-maila egiaztatzea, hau da: etorkizunean lanbide-proiektzioa izango duten esparru pertsonal, sozial eta akademikoko egoeretan edo jardueretan aplikatu daitezkeen jarduera kognitibo, instrumental eta jarrerazkoaren maila.

Konpetentzia espezifikoak eskuratzen laguntzen duten oinarritzko jakintzak lau multzotan antolatzen dira.

- *Pertsona ekintzailearen profila, ekimena eta sormena*: pertsona ekintzailearen profilaren analisiarekin eta garapenarekin lotzen da, eta bereziki nabarmentzen du autoezagutza, trebetasun pertsonalak eta kudeaketa-estrategiak garatzea, ekin behar den testuinguru aldakor eta zalantzarrietan aurre egiteko.
- *Ingurunea ideien eta aukeren iturri gisa*: ingurune ekonomikoari, enpresarialari, sozialari, ingurumenekoari, kulturalari eta artistikoari buruzko analisiarekin lotzen da, baita ingurune horiek arakatzeko estrategiak garatzearekin ere —ikasleei premiak identifikatzea eta ingurune horietan sortzen diren aukerak bilatzea ahalbidetuko dieten estrategiak—, eta ikasleei ikusarazten zaie inguruneak bere proiektu pertsonalak eta profesionalak gauzatzea baldintzatuko duela.
- *Proiektu ekintzaile bat gauzatzeko baliabideak*: giza baliabideak, baliabide materialak, immaterialak eta digitalak erakarri eta kudeatzearekin lotzen da, proiektu bat errealitatera eramateko beharrezko elementuak diren heinean. Horrela, zenbait gai jorratzen dira, hala nola finantzaketa-iturriak, finantza-baliabideak eta lan-taldearen prestakuntza eta funtzionamendu bizkorra.
- *Proiektu ekintzailea gauzatzea*: helburu du proiektu ekintzaile bat egiteko metodoa ezagutaraztea, asmatze-fasetik hasi eta azken prototipoa egikaritu eta baliozkotzeko faseetara iritsi arte. Prozesu horretan, ikasleak ohitu egingo dira ikasgelan beren proiektu berritzailea egiteko garaian erabil ditzaketen metodologia bizkorrekin.

Jakintzagai honen programazioari dagokionez, curriculumak ikuspegi teoriko-praktiko batetik zehaztea proposatzen da, jakintzak proiektu ekintzaile baten garapenean aplikatuz horren fase bakoitzean. Horrela, ikaskuntzak ekintzan eta ekintzatik eraikiko dira. Ikasleek proiektua asmatuko dute, baliabideak kudeatuko dituzte, prototipoak garatuko dituzte, horien baliozkotze iteratiboan parte hartuko dute eta erabakiak giro malgu eta irekian hartuko dituzte. Horrek bidea emango die taldean lan eginez beren gaitasunak hedatzeko eta beren trebetasunak eta jarrera ekintzaileak sendotzeko. Lan-dinamika horrek sormeneko, kolaborazioko eta partaidetzako kultura sorrarazten du, pertsona guztientzat balioa sortzera bideratua. Proiektu hori gauzatzeko, beharrezkoa da, alde batetik, ezagutzak eskuratzea eta garatzea hainbat arlo aztertuz, hala nola matematika, ingelesa, filosofia eta etika, informatika, etab.; eta, bestetik, ezinbestekoa da jakintzagai horietako irakasleekin eraginkortasunez koordinatzea, horrela proiektu berritzailea efizientziaz egin ahal izateko.

KONPETENTZIA ESPEZIFIKOAK

1. Norberaren eta besteen indarrak eta ahuleziak analizatzea eta baloratzea, gaitasunei buruz gogoeta eginez eta behar diren emozioak eta trebetasunak eraginkortasunez kudeatuz, ingurune aldakorretara egokitzeko eta gizartearentzat balioa sortuko duen proiektu ekintzaile pertsonal bakarria diseinatzeke.

Autoezagutzari esker, pertsonak bere asmo, behar eta desiretan araka dezake, bere gaitasunak ezagutu ditzake, bere adimenak bereizi eta, horrela, bere indar eta ahuleziei buruz gogoeta egin dezake, eta horiek hazkunde pertsonalerako iturri gisa baloratzen ikasi. Era berean, emozioak ezagutzea eta kudeatzea dakar, testuinguru aldakor eta globalizatuertara eta gatazka kognitibo eta emozionala sor dezaketen egoera zalantzarrietara egokitzeko, helburu hartuta proiektu pertsonal bat abian jartzea eta gauzatzea, balio bakarreko proposamen baten bidez. Horrek bizitzako esparru eta egoera guztietan (pertsonalak, sozialak, akademikoak eta profesionalak) aukera berriak bermatu behar ditu.

Garrantzitsua da proiektuari jarrera ekintzaile, erabakitzaile, berritzaile eta iraunkorrek aurre egitea, hainbat ingurunetara egokitu ahal izateko, eta bai bakarka, bai taldean, sormenez jarduteko ohitura ga-

ratzearen garrantzia ulertzea. Horretarako, sormen-gaitasuna trebatu behar da, gaitasun hori hainbat agertokitan aplikatuz, baliozko aurrerapen pertsonalak, sozialak, kulturalak, artistikoak eta ekonomikoak lortzeko.

Konpetentzia espezifiko hau irteera-profilaren deskriptore hauekin lotzen da: KPSII1, HK1, EK2 eta KAKK3.

2. Taldeak osatzeko estrategiak erabiltzea, baita gizarte-trebetasunak, komunikaziokoak eta berrikuntza bizkorrekoak ere, horiek hainbat testuingurutako lan-dinamiketan autonomiaz eta motibazioz aplikatuz, lantalde eraginkorrek eratzeko eta irtenbide ekintzaileak asmatu eta garatzeko prozesuan beste pertsona batzuekin kooperazioan aritzearen balioa ezagutzeko.

Proiektu bati arrakastaz aurre egiteko, ezinbestekoa da norberaren eta besteen ezaugarri bereizgarriak eta nolakotasunak ezagutzea eta baloratzea. Pertsonen ahalmenak behar bezala identifikatuz gero, lantalde orekatu, eraginkor, kooperatibo, motibatua eta arduratsu bat eratu ahal izango da, batzuen eta besteen ahuleziak konpentsatu eta haien indarrak sendotuko dituen eta, horrela, ekin nahi zaion proiektuaren beharretara egokituko dena.

Lantaldeak eratzeko hainbat estrategia abiarazi behar dira, helburuak, arauak, rola eta erantzukizunak ekitatez zehaztuz eta kideen arteko aniztasuna bultzatuz. Horrela, talde multidimentsionalak eta inklusiboak lortzen dira, elkarriketaren bidez adimen kolektiboa sortzeko gai direnak, autonomiaz funtzionatzeko eta berrikuntza bizkorrean lagundu ahal izateko.

Zenbait gizarte-trebetasun, hala nola enpatia, asertibitatea, negoziazioa, lidergoa eta gainerakoen interes, hautu eta ideiekiko errespetua behar bezala garatzeak eta erabiltzeak, baita hizkuntzak ezagutzeak eta komunikazio-trebetasunak erabiltzeak ere, erraztu egiten du taldeko kideen artean ikuspegi partekatua izatea, lan-giro ona sortzea eta kooperazio-loturak eraikitzea. Horrek berekin ekarriko du hazkunde pertsonal eta kolektiboa lortzea eta gizonen eta emakumeen arteko errespetu-, ekitate- eta berdintasun-balioak areagotzea.

Konpetentzia espezifiko hau irteera-profilaren deskriptore hauekin lotzen da: HKK1, KE1, KE2, KD3, KPSII1, KPSII3, HK1 eta EK2.

3. Hautemandako behar ekonomiko eta/edo sozial tokiko eta globalei erantzungo dieten ideia eta irtenbide berritzaileak eta iraunkorrek lantzea, zentzu etiko eta solidarioarekin, asmatzeko metodologia bizkorrek erabiliz eta haien indarrak eta ahuleziak nahiz ideia horiek ingurunean sor dezaketen inpaktua analizatuz, ingurune naturala, soziala, kulturala eta artistikoa babesteari eta zaintzeari lotutako erronkak gainditzea lortzeko.

Gaur egungo erronkei aurre egiteko, ezinbestekoa da pertsonen beharrezko tresnak ematea, ekimenez eta ikuspegi kritiko eta ekintzaile batetik, beren inguruneko arazo eta beharrei modu eraginkorrean erantzun diezaiaketen ideia eta irtenbide berritzaileak eta iraunkorrek bilatu, sustatu eta gara ditzaten. Ideia eta irtenbide horiek testuinguru zabalagoetara, baita globalagoetara ere, eraman litezkeen tokiko erronkei erantzun behar diete. Hori lortzeko, funtsezkoa da ideiak sortzen trebatzea eta horiek baliozkotze-prozesuen mende jartzea, banakako nahiz taldeko metodologia bizkorrek erabiliz, eta ideia horiek gauzatzeak bizitzako eta sektoreetako esparru eta testuinguru guztietan izan dezakeen inpaktua analizatuz.

Egungo erronkei erantzunak bilatzeko prozesu hori ezinbestean lotuta dago balio sozial eta pertsonalekin. Horregatik, ideiak eta irtenbideak asmatzeko eta diseinatzeko prozesuan (aplikazio informatikoak garatzea barne), beharrezkoa da garapen iraunkorreko helburuak kontuan hartzea eta printzipio etiketatik jardutea, genero-ikuspegiari erreparatuz. Horrek berekin dakar gure ekomendekotasuna eta errealitate desberdinak ezagutzea eta horietaz jabetzea, eta gure munduaren eta gizartearen aukerak baloratzea, munduaren zaintza eta babesarekiko jarrera proaktibo eta konprometituarekin.

Konpetentzia espezifiko hau irteera-profilaren deskriptore hauekin lotzen da: STEM1, STEM5, KD4, KD5, HK4, EK1, EK2, EK3, KAKK3.

4. Proposatutako ideia edo irtenbide sortzailea garatzeko prozesuan eskuragarri dauden baliabideak hautatzea eta biltzea, baliabide horiek ematen dituzten produkzio-bitartekoak eta finantza-iturriak ezagutzuz eta horiek erakartzeko estrategiak aplikatuz, irtenbide ekintzailea errealitatera eramango duen proiektua abian jartzeko.

Ideiak balio-prototipo bihurtzea dakarren prozesuaren barruan, nahitaezkoa da kontuan hartzea eskura dauden giza baliabideak, baliabide materialak, immaterialak eta digitalak lortzera eta kudeatzera bideratutako fase bat, etikoki, efizientziaz eta modu iraunkorren ideia edo irtenbide ekintzailea errealitate bihurtzeko dezentak bilduz eta hautatuz. Baliabideen mobilizazioa eta optimizazioa ekintza-planaren partetzat hartzeko ikuspegi horrek, gainera, hori planteamendu etikoetatik egitea eskatzen du; horrela, ideiarekin xede den ingurunean inpaktu positiboa izango duen jardunbide egokien eredu bat eskainiz. Etika prozesu sortzailearen hasierako uneetatik agertzen da garapen iraunkorrera eta ongizate komuneraren bideratutako ekimenetan. Era berean, ideien eta irtenbideen babesa ere biltzen du, eta horrek ezagutza espezifikoak eskatzen du besteen sorkuntzekiko errespetua eta norberaren ideia eta irtenbideen gaineko eskubideak bermatzeko.

Bestalde, ideia bideragarri bat abian jartzeak erronka erantzukizunez onartzea dakar, eta pertsona ekintzaileak eta taldeek ezagutza ekonomikoak, finantzarioak, legezkoak eta teknikoak izatea, horiek prestakuntzaren bidez eskuratutako baliabide propioetatik ere ulertuta. Ezagutza horiek ikasleak orientatu behar dituzte finantzaketa bilatzean eta tresna digitalak erabiltzean. Bestalde, tresna digitalek ideia eta irtenbideei zabalkundea eta proiektzioa eman behar dizkiete horiek gauzatzeko prozesuan.

Konpetentzia espezifiko hau irteera-profilaren deskriptore hauekin lotzen da: STEM3, KD2, EK1, EK2.

5. Ideia eta irtenbide sortzaileak aurkeztea eta azaltzea, komunikazio-estrategia bizkorak erabiliz eta komunikazio eraginkor eta errespetuzkoaren garrantzia baloratuz, egoera bakoitzaren testuinguruari eta helburu zehatzei egokitutako mezu sinesgarriak transmititzeko eta aurkeztutako ideia eta irtenbide ekintzaileak baliozkotzeko.

Bizi garen mundu global eta konplexuak prestakuntza eskatzen du pertsonen komunikaziorako konpetentzia hobetzeko. Garrantzitsua da ulertzea komunikazio-estrategiak garrantzi berezia hartzen duten elementuak direla, pertsona ekintzaile batek beste batzuekin modu eraginkorren eta positiboan interakzioan jardun dezan. Ezagutzak eta esperientziak gainerako pertsonekin partekatzeak aukera ematen du irtenbide egiaztatutako eta berritzaileak asmatzeko, motibatuzko, konbentzitzeko, erabakiak hartzeko eta aukerak sortzeko. Alde horretatik, komunikazio bizkorreko estrategiak erabiltzeak erraztu egiten du ideia original bat azaltzeko zeregina, haren indarrak eta ahuleziak argi eta azkar transmitituz. Era berean, taldeei aukera ematen die sortutako ideia sortzaileak azkar partekatzeko, baliozkotzeko edo baztertzeko, baita proposatutako erronkei aurre egitea helburu hartuta azkenean aukeratzen diren irtenbideen inguruko erabakiak hartzeko ere.

Bestalde, orobat, beharrezkoa da pertsonen proiektu ekintzailean garatuko den ideia edo irtenbidea ingurune analogiko eta birtualetan modu argi, erakargarri eta sinesgarrian aurkezteko eta azaltzeko tresnak eskuratzea, proiektua gauzatzeko edo zabaltzeko behar diren baliabideak biltzeko amoz.

Konpetentzia espezifiko hau irteera-profilaren deskriptore hauekin lotzen da: HKK1, HKK2, HKK3, KD3, KPSII1, HK1, EK1, EK2.

6. Ekonomiaren eta finantzen oinarriko alderdiak ulertzea, ingurune ekonomikoa eta soziala analizatuz, behar diren baliabideak planifikatuta, planteatzen diren erronka berriei erantzuneko dien ideia edo irtenbide ekintzaile bat garatzeko.

Gaur egun, funtsezkoa da ingurunea eta gizartea ikuspegi ekonomiko batetik ezagutzea eta ulertzea. Hain zuzen, testuinguru horietan sortzen diren beharrak eta aukerak, eta horiei erantzun behar zaie, sortzen diren erronka berriei erantzuneko dieten irtenbide sortzaileak, errealistak, eraginkorrak eta iraunkorrak eskainiz.

Heldu beharreko lau elementu daude. Lehenengoa arazo ekonomikoari buruzkoa da. Horrek pertsonen hartu beharreko erabakiak baldintzatzen ditu, behar indibidualak eta kolektiboak betetzeko hautemandako urritasun-mailaren arabera. Hortik dator adierazleak interpretatzen jakitearen eta merkatuetan eta gizartean bertan joerak ikuspuntu ekonomiko batetik aurkitzen ikastearen garrantzia. Bigarrenak zerikusia du erabaki pertsonalak modu arduratsuan gidatzeko behar diren ezagutzak emango dituen eta ekiteko baliabideak lortzen lagunduko duen finantza-heziketa eskuratzeko beharrezkin. Hirugarrena ingurune ekonomiko eta sozialaren analisiari buruzkoa da. Analisi hori ikuspegi makroekonomikotik zein mikroekonomikotik egiten da. Ulermen hori abiapuntua da bete gabeko beharrak hautemateko eta egungo erronkei modu eraginkor, ekitatibo eta iraunkorrean irtenbidea emango dieten ideia berritzaileak sortzeko. Eta, azkenik, proiektu ekintzaile bat abian jartzeak berekin dakar hura bere testuinguru ekonomikoaren barruan kokatzea, horrek, neurri handi batean, haren bideragarritasuna baldintzatuko baitu, ekimen zehatzaren xede diren ingurunea eta sektorea aldekoak diren aurreikusteko.

Konpetentzia espezifikoa hau irteera-profilaren deskriptore hauekin lotzen da: STEM1, HK1, EK1, EK2, EK3.

7. Modu kooperatiboan, autonomoan eta bizkorrean prototipo berritzaileak eta iraunkorrak eraikitzea eta analizatzea, diseinatze eta egikaritzeko estrategia eraginkorrak aplikatuz, prozesu ekintzailearen fase guztiak modu kritikoan eta etikoan ebaluatuz eta lortutako emaitzak baliozkotuz, bai sortutako prototipoak hobetzeko eta perfektionatzeko, bai ikaskuntza eta garapen pertsonal eta kolektiboan aurrera egiteko.

Proiektu ekintzaile baten helburua irtenbide berritzaile bat da, xede duen ingurunean erabiltzen den azken prototipo, ondasun edo zerbitzu bihurtua.

Azken prototipo hori modu kooperatiboan gauzatzen den eraikuntza-prozesu baten emaitza da, eta berekin dakar jarrera kritiko eta etikoarekin etengabe ebaluatu behar diren faseetatik igarotzea. Hala, prozesu sortzailean irtenbide-hipotesiak planteatzen dira, eta horiek ikaskuntza baliozkotu bihurtu behar dira. Horretarako, prototipoak eraikitzea jotzen da, baliozkotu nahi dugun irtenbidearen edo irtenbide zatiaren errepresentazio ukigarri gisa. Irtenbide berritzailea jasotzen duen prototipoa aukeratu ondoren, proiektua diseinatu, kudeatu eta gauzatzen da. Horretarako, beharrezkoa da ezagutzea eta aukeratzeko jakitea baliabideak kudeatzeko estrategiak, antolamenduedo negozio-eredua, egikaritze-plana eta prototipoak egiteko teknikak eta tresnak. Beharrezkoa da erabaki egokiak gero eta autonomia handiagoz hartzen ikastea, proiektua modu bideragarri eta iraunkorrean gauzatzeko, kontuan hartuta gauza beneratzen garrantzitsua ikaskuntza baliozkotua dela. Sortutako prototipoak ebaluatze eta testatzeko, funtsezkoa da metodologiak, teknikak eta tresnak ezagutzea, azken prototipoaren garapena bizkorra, iteratiboa eta inkrementala izan dadin. Horrek eskatzen du lanaldi laburrak programatzea, non ikaskuntza esperimentatuak eta baliozkotuak egiaztatu ahal izango diren, eta ingurune aldakorretan irtenbide optimoak eta iraunkorrak eskaintzea.

Konpetentzia espezifikoa hau irteera-profilaren deskriptore hauekin lotzen da: STEM3, STEM5, KD5, KPSII3, KPSII5, EK2, EK3.

EBALUAZIO-IRIZPIDEAK

Ekonomia eta Ekintzailetza
1. konpetentzia espezifikoa
1.1 .Proiektu pertsonal original eta balio-sortzaile bat sortzea, ingurune konplexu eta aldakorretara egokituz, eta norberaren eta besteen indarrak eta ahuleziak arazoituta analizatzeko estrategiak erabiliz.
1.2. Emozio eta trebetasun pertsonalak eraginkortasunez kudeatzea, norberaren gaitasunei buruz gogoeta eginez eta jarrera sortzaileak sustatuz eta garatuz.

2023ko uztailaren 31, astelehena

Ekonomia eta Ekintzailtza
2. kompetentzia espezifikoa
2.1. Ekitatearen, hezkidetzaren eta gizonen eta emakumeen arteko ekitatearen printzipioetan, parte hartzeko jarreran eta helburu komunak bistaratzean oinarritutako lantaldeak eratzea, helburu gisa hartutako erronka lortzeko behar diren giza baliabideak identifikatzen eta optimizatzen lagunduko duten estrategiak erabiliz.
2.2. Trebetasun sozialak, komunikazio irekikoak, motibaziokoak, lidergokoak, kooperaziokoak eta berrikuntza bizkorrekoak praktikan jartzea talde-laneko hainbat testuingurutan, analogikoetan zein digitaletan.
2.3. Gauzatutako prozesuaren faseetan eta lan-dinamiketan besteen ekarpenak baloratzea eta errespetatzea, modu kolektiboan hartutako erabakiak errespetatuz
3. kompetentzia espezifikoa
3.1. Ingurune naturala, soziala, kulturala eta artistikoa zaintzeko eta hobetzeko jardutea, garapen iraunkorra sustatuko duten proposamen eta jarduera tokiko eta globaletatik abiatuta, ikuspegi sortzaile, ekintzaile eta konprometituekin.
3.2. Ideiak garatzea eta irtenbide bizkor, berritzaile eta iraunkorrak bilatzea helburu hartutako erronkak gainditzeko, horien abantailak eta eragozpenak eta izaera etikoa ebaluatuz, baita maila pertsonalean eta ingurunean sor dezaketen inpaktuaren ebaluazioa eginez ere.
4. kompetentzia espezifikoa
4.1. Irtenbide ekintzaile bat errealitatera eramango duen proiektu bideragarri bat abian jartzea, sormenezko asmatze-prozesuan eskura dauden baliabide materialak, immaterialak eta digitalak aukeratuz eta bilduz, eta horien erabilera efizientziaz planifikatuz..
4.2. Baliabideak erakartzeko eta kudeatzeko estrategiak autonomiaz erabiltzea, ideiak eta irtenbideak ekintza bihurtzeko prozesuaren ezaugarriak ezagutuz..
4.3. Proiektu ekintzaileari ondoen egokituko zaion forma juridikoa aukeratzea eta enpresaren zerga-betebehar nagusiak eta Gizarte Segurantzari dagozkionak identifikatzea, proiektua abian jartzeko tramiteak ezagutuz
5. kompetentzia espezifikoa
5.1. Testuingurura eta helburu zehatzetara egokitutako sormenezko ideiak eta mezu sinesgarriak aurkeztea eta azaltzea, aurkeztutako ideiak eta irtenbideak baliozkotzeko, prozesu osoan zehar komunikazio eraginkorra eta errespetuzkoa mantentzearen garrantzia baloratuz
6. kompetentzia espezifikoa
6.1. Beharrak hautematea, ingurune ekonomikoari eta sozialari buruzko analisiaren bidez, behatutako ondorioak ideia berritzaile bat sortuz.
6.2. Erronkei modu sortzailean, eraginkorrean, ekitatiboan eta jasangarrian aurre egitea, zenbait testuinguru eta egoera erreal edo simulatutan, beharrezko ezagutza ekonomiko eta finantzarioak transferituz.
6.3. deia edo irtenbide ekintzaile bat garatzea, ekonomiaren eta finantzen esparrutik eskuratutako ezagutza, trebetasun eta jarreretatik abiatuta, horien eta horiek garatzeko behar diren eta eskuragarri dauden baliabideen arteko harremana ikusiz.
7. kompetentzia espezifikoa
7.1. Bai ikaskuntzarako, bai garapen pertsonal eta kolektiborako, azken prototipoaren ekarpena baloratzea, gauzatutako prozesuaren fase guztiak modu kritiko eta etikoan ebaluatuz, baita hura eraikitzeo erabilitako estrategien egokitzapenaren ebaluazioa eginez ere.
7.2. Sortutako prototipoak egiteko jarraitutako diseinu- eta egikaritze-prozesua modu kritikoan analizatzea, prozesuetan lortutako eraginkortasunaren, bideragarritasunaren eta egokitzapenaren eta lortutako emaitzen arteko konparazioak ezarriz.
7.3. Diseinatzeko eta egikaritzeko estrategia eraginkorrak erabiltzea, azken prototipoa modu bizkor, kooperatibo eta autonomoan eraikitzea erraztuko dutenak hautatuz.

OINARRIZKO JAKINTZAK

Ekonomia eta Ekintzailtza
A. Pertsona ekintzailearen profila, ekimena eta sormena.
Pertsona ekintzailearen profila. Autokonfiantza, autoezagutza, enpatia, pertseberantzia, ekimena eta erresilientzia. Adimen emozionala (AE)*. Ahuleziak eta indarrak diagnostikatzeko teknikak eta tresnak. (AMIA)*.
Sormena, ideiak eta irtenbideak.

2023ko uztailaren 31, astelehena

Ekonomia eta Ekintzailletza
Gizarte-trebetasunak*: Komunikazioa, motibazioa eta lidergoa; negozio-estrategiak.
Emozioen kudeaketa*. Ziurgabetasuna kudeatzeko eta erabakiak hartzeko estrategiak testuinguru aldakorretan. Errorea eta baliozkotzea hobetzeko eta ikasteko aukera gisa.
Ikuspegi ekintzailea*. Euskal ekintzailearen figura tokiko garapenaren iturri motor gisa.**
Estereotipoak enpresa-profilean; genero-rolen haustura enpresa-jardueran.*
Ekintzailletza, eta lana eta familia bateragarri egiteko estrategiak, erantzunkidetasunetik abiatuta.*
B. Ingurunea ideien eta aukeren iturri gisa
Ekonomiaren oinarriko printzipioak. Arazo ekonomikoa: baliabideen eskasia eta aukeratzeko beharra*. Hautaketa ekonomian*. Kostuak, analisi marjinala, pizgarriak. Pertsonen portaera erabaketan.
Ingurunearen ikuspegi ekonomikoa. Garatzeko bidean dauden merkatuen hazkundera*. Merkataritza, ongizatea eta desberdintasunak.
Ekonomia- eta enpresa-ingurunea. Eragile ekonomikoak eta errentaren fluxu zirkularra*. Merkatuen funtzionamendua*. Merkatua eta negozio-aukerak: ingurune orokorraren edo makroingurunearen analisia; ingurune espezifikokoaren edo mikroingurunearen analisia.
Gizarte-ingurunea ikuspegi ekonomikotik. Kolaborazio-ekonomia. Ekonomia soziala eta solidarioa. Enpresa eta bere erantzukizun soziala. Enpresa-erabakia eta berrikuntza (I+G+B) gizartea eraldatzeko iturri gisa.
Ingurune ekologikoa ikuspegi ekonomikotik. Planetaren mugak, aztarna ekologikoa eta ekonomia zirkularra*. Garapen iraunkorreko helburuak (GIH) eta tokiko garapena. Greenwashinga
Ingurune kulturala ikuspegi ekonomikotik. Produkzio-sektoreak eta ingurune kultural, digital eta artistikoaren generoak. Proiektu kultural ekintzaileak sortzen laguntzen duten eragileak. Ekintzaile kulturalaren figura*.
Ingurunea arakatzeko estrategiak. Informazioaren bilaketa eta kudeaketa.
C. Proiektu ekintzaile bat gauzatzeko baliabideak.
Enpresaren edo erakundearen misioa, ikuspegia eta balioak. Erakunde ekintzaileen antolamendua eta kudeaketa. Enpresaren eginkizunak.
Giza baliabideak: Taldeak enpresetan eta erakundeetan. Talde-lanerako estrategia bizkorak. Lan-taldeen prestakuntza eta funtzionamendua.
Finantza-baliabideak. Pertsona ekintzailearen finantzak*: Diruaren kontrola eta kudeaketa. Iturriak eta sarreren eta gastuen kontrola. Epe laburreko eta luzeko finantza-baliabideak eta horiek finantza-ongizatearekin duten lotura. Zorpetzea. Finantzaketa-iturriak eta finantza-baliabideak erakartzeko estrategiak. Crowfundinga*. Finantza-sistemarako hurbilketa. Finantza-erakundearen funtzionamendua*. Finantza-arriskuaren kudeaketa eta aseguruak.
D. Proiektu ekintzailea gauzatzeko estrategiak.
Erronka edo aupada helburu gisa.
Proiektu ekintzaile baten plangintza, kudeaketa, egikaritzea eta ebaluazioa*. Erronkatik prototipora
Enpresa bizkorra: Metodologia. Produktuaren garapena eta berrikuntza bizkorra.
Prototipatze azkarreko teknikak eta erremintak.
Konpetentzia analizatzeko metodoak
Prototipoa ingurunean aurkezteko eta sartzeko estrategiak. Hedapen-estrategiak.
Prototipoak baliozkotzeko eta testatzeko estrategiak. Lan-prozesuaren balorazioa.
Prototipoaren gaineko eskubideak: jabetza intelektuala eta industrial
Erabiltzailea prototipoaren azken hartzaile gisa. Erabiltzaileek erabakiak hartzeko estrategiak. Erabiltzailea kontsumitzaile gisa. Kontsumitzaileen eskubideak eta betebeharrak.
Proiektu ekintzaile bat abian jartzeko oinarriko administrazio-eskakizunak: forma juridikoa, zergak eta gizarte-segurantza.*